



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

611. zkia.  
XV. urtea  
2007ko apirilaren 27a

*Manuel Jauregi, Gernikako bonbardaketaren lekukoa*

**«Ghien izutzen ninduena,  
bonben txistu hotsa zen»**





**RENAULT**  
servicios

Gelditu ez zaitezzen mugitzen gara



**MUNTATZEA ETA OREKATZEA DOAN**

NEURRIAK	Michelin® MS	Gallivestel® GRAND	exxosor® XS
155/60 R13 79T	52,23 €	46,86 €	46,33 €
165/65 R14 79T	68,66 €	58,58 €	56,92 €
165/70 R13 79T	54,77 €	54,61 €	54,38 €
175/65 R14 82T	78,88 €	75,40 €	71,34 €
175/70 R13 82T	65,14 €	56,41 €	53,30 €
185/55 R15 82H	122,86 €	97,42 €	111,90 €
185/60 R15 84H	114,26 €	109,62 €	97,44 €
185/65 R15 88T	92,13 €	77,97 €	76,45 €
185/65 R15 91H	107,88 €	103,82 €	98,60 €
195/65 R15 91T	102,59 €	84,19 €	85,74 €
205/55 R16 91V	143,35 €	143,26 €	146,78 €
205/55 R16 91H	159,09 €	116,47 €	-
205/60 R16 93H	142,45 €	140,36 €	139,20 €
225/45 R17 94V	208,97 €	156,08 €	209,83 €
185/70 R14C BSR	109,62 €	93,96 €	99,76 €
195/65 R16C 100T	134,72 €	131,00 €	124,92 €
225/65 R16 12R	215,76 €	161,24 €	172,84 €

**Fidagarritasunak bide bat baino ez du**  
**Orain, pneumatikoak aldatzean**  
**OREKATZEA ETA LAN ESKUA DOAN.**

\*Eta oparitzen, R27<sup>er</sup>aren posterra. Munduko txapelketa bi irizpazi ondoren, Renault-ek beste aldi baterako diruzio dio ING Renault F1 Team gisa R27arekin. Begien berriak galduta ez dauden, jarraituzko berriaren posterra emango dizugu opari libre bategiaren egindako erabilin eragiketzekin.

**PNEUMATIKOEN  
4X3 ESKAITZA**



Sustapenak (R25) era arin bako eta neurri guzietarako da. Ekin metatu dabilke beste sustapen bakoetara, orduan erabilera egokia erabili behar da.

Prezioak berriak dira eta ez dira sartzen zerbitzu gehigarriak. Prezioak bako da. Erabilera arin bakoetara erabilera egokia erabili behar da.



[www.mantenimiento.renault.es](http://www.mantenimiento.renault.es)



**RENAULT  
AUTOBERRI**

Polígono OIaso, 17.- Tel. 943 74 27 55 - ELGOIBAR  
ARRASATE - AZPEITIA - IRUN - TOLOSA

**Diseinuari begira: Opel Astra**



**MAXI**  
**Mes**  
**OPEL**

**Giauto**  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

salmentak: 902 345 123  
tailerra: 902 345 125

ELGOIBAR  
Olaso 25  
EIBAR  
Otaola 27

ANOETA-TOLOSA  
Benta-Aldea Ind. 3  
ARRASATE  
San Andres 10D

BERGARA  
Olabarrena  
OLABERRIA  
Karobi Ind.





AINHOA MENDIBIL

Kaixo Amaia,  
Orain hilabete momentua bizitzearen inguruan jardun genuen. Eta halaxe ibili naiz denbora honetan. Aurreko astean, As-kixun (Getaria) egon ginen Atxutxiamaikako begiraleok. Demasa izan zen. Udalekuak prestatzeko, gu geu udalekuetarako prestatzeko, harremanak sendotzeko, ondo pasatzeko, begiraleak hiru egunez ume bihurtzeko, albokoarengandik ikasteko... mila helburuk batu gintuzten. Baita helburuak bete ere gainera. Barre egin dugu, ugari; ikasi egin dugu; jolastu egin dugu; prestatu egin gara; motibatu... Kantatu egin dugu, eta dantzatu, eta antzeztu, eta elkar margotu dugu, eta hondarretan bueltaka ibili gara... Lorik ez dugu ia egin, momentua bizi behar, eta bi egun zirela, ba aprobeztatu behar! Baina begira nola nagoen orain Amaia. Alperrik da, egia da bai, politegia; momentua bizi behar dela, eta bizitzen dudala. Baina batzuetan, horren dira momentuak, orduak motzak, eta hainbestekoa hauek bizitzeko gogo, ez dugula lo egiteko astirik hartzen. Bizi egiten dugula, pentsatu ere egin gabe ia. Bizi. Eta horrela jartzen naiz ni gero nostalgika, tonta-tonta. Une hori bukatu, eta beste baten zain, tarte horrek minuturik ez balu bezala. Ez han, ez hemen.

Baina gaur, atzera begiratuko dut. Begiak itxita, Askixu ikusiko dut. Eta gu bertan. Ez ahazteko, esaten nien bezala, onak gara. Benetan onak ekipo! Patxo bat bakoitzari.

## ZOZOAK BELEARI...

«Momentua  
bizi behar da  
eta nik  
bizi dut»

AINHOA

«Aurrera ordez  
atzera begira  
bizi gara  
askotan»

AMAIA



AMAIA GORROTXATEGI

Aupa Ainhoa,  
Orain hilabete, gure idatziaren azpiko esakerak hauxe zioen: "zoriona ez da nabaritzen, gogoratu egiten da". Asko gustatu zitzaidan. Eta tamalez, egia dela pentsatu nuen. Aurrera ordez atzera begira bizi gara askotan. Amak pasiloan duen bere ezkontzako argazkia begiratzen du pentsatuz bere bizitzako egunik zoriontsuena izan zela. Nik gelan ditudan argazkiak begiratzen ditut askotan, pentsatuz egun haiek izugarriak izan zirela. Ziur nago hurrengo urtean, urte hau izugarria izan zela irudituko zaidala. Eta izugarria izaten ari da. Baina hala ere, ordenagailuko pantailan Xoxote gailentzen da zuri-zuri, ohe gainean Elgoibarko etxean nuen Beatles poster berbera daukat eta paretetan 53 argazki. Guzti guztiak Euskadin ateratakoak. Ez dut uste iraganean preso nagoenik, baina niri oso erraza egiten zait pasatako momentu txarrak ahaztea. Horregatik momentu askotan "todo tiempo pasado fue mejor" delakoak zentzua hartzen du.

Ikus ezazu Askixu begiak itxita Ainhoa, ikus ezazu zure ahizpa jaio zen eguna, ikus ezazu Perez arratoitxoak burko azpian utzi zizun lehen oparia, baina ez ezazu ahaztu gaur egin duzuna, eta bihar egin nahi duzuna.

Gogoratu ezazu zoriontsu izan zinen garaia, baina aldi berean konturatu zaitez orain ere zoriontsu zarela. Merezki du.



IRAGANA AINTZIN SOLASA DA



William Shakespeare

## Eukara Batzordeburuaren azalpena

Etxeetan ura aurrezteko asmoarekin banatu den ontziarekin zerikusirik ez dudala adierazi nahi dut.

Zinegotzi izan arren, ez dut horren berririk izan, herritar guztiok bezala etxean jaso dudana arte. Gaztelania hutsean egoteak ni ere guztiz mindu nau. Dakizuen bezala, beti jardun dut Euskara bultzatzearen alde, eta horren adibidea azken plenoan daukagu: EAKo zinegotziak izan ginen lanpostu berri batzuk onartzearen aurka bozkatu genuen bakarrak. Lanpostu hauetako batek ez zuen Eusko Jauriaritzako HPStik aholkatutako euskara perfila ezarrita.

Ura aurrezteko egitasmo horren berri izan bagenu, gure ahalegin guztiak egingo genituzkeen euskarak ere presentzia izan zezan. Beti jokatu izan dugu horrela, nahiz eta batzuetan gure nahia betetzea ezinezkoa izan.

**MIREN ARRATE ARRIETA**  
**EUSKARA BATZORDEBURUA ETA EUSKO**  
**ALKARTASUNAKO ZINEGOTZIA**

## “Partido del Negocio Vasco”

Lau urte pasatu dira dagoeneko, Elgoibarko udaletxean 1.000 elgoibartarren ahotsa isilarazi zutenetik. Lau urte pasatu dira PNVk Einbiouko bi hautagai kanpoan utziz, 2 hautagai gehiago lortu zitueneko garaitik. Sinestezina iruditu arren, hala gertatu da Elgoibarren, ple-

noetara joateko unean, Einbiouko hautagaiak iristean, hitza ukatua izan zaie, argi indarra moztetaino. Apartheid egoera bizi izan dugu, Euskal Herriko hainbat udaletxetan, eta baita Elgoibarren ere.

Merkadilloaren kasuan, PNVren erabakiak denok jasan behar ditugula ikusitarazi digu, beraiek esaten dutena, eta punto! Herri oso bat kalean mobilizatua ikusi ostean, PNVk berean jarraitu du, merkadilloa Sigmara eraman arte eta bertako langileak sekulako galerak izan arte. Ikus daiteke orain Elgoibar hilda dagoela plaza alde horretan, ostegunetan egoten zen giro eta jende guztiarekin konparatuz, herri giroa hil du PNVk. Zer esan bere polizia erabiliz, plaza inguruta ikusi behar izan ditugun egun guztiak. Lotsagarria izan da.

Errotodaren kasua ere kuriosoa izan da, jende guztiak ikusten zuen, semaforo gabeko errotonda oso bat egiteko aukera, askoz trafiko gutxiago, azkarragoa, ordu kritikoetan arintasunez emango zen irteera... baina hemen ere kontrakoa egin zuten, errotonda erdia eginez, eta semaforo asko jarri. Semaforoak izorratuta egon ziten momentuan, (errotonda oso bat izan zenean, piboteekin) bakarrik ibili da ondo trafikoa.

Babes Ofizialeko Etxeen zozketa beraien artean egitearena ere, normalizat jo beharko genuke? B.O.E. zozketa egin eta El Mundon bakarrik publikatu dituzte emaitzak, eta noiz izan zen zozketa hori? Pasa den astean!!! komentatzen zuen jendeak kalean. Honek amorrarazi ninduen,

etxea hain garrantzitsua den zerbait, herritar konkretu batzuei “oparitzea” ez dut uste bidezkoena denik, baina “Partido del Negocio Vasco”rentzat guztiz normala da, El Mundo irakurtzen ez baduzu, izorra hadi!

Lau urte hauek lerro hauetan laburtzea oso zaila iruditzen zait, baina ona hemen egin diren gauza batzuk; lindaneak, elizako sarrera berria (aireportu), Usuako “pizkina” delako tontakeria hori, errotonda, merkadilloa, apartheid egoera, euskara mailaren jaitziera (plenoetan), etxeen eraikuntza masiboak, Aisiakinen pelotazoa, Morterika, Babes Ofizialeko Etxeen adarjotzea...

Guzti honekin bukatzeko ordua iritsi da, korrupzioa eta “marbellismoa” Elgoibarko udaletxetik urruntzeko garaia hel du da! 25 urtetako kudeaketa-entxufismoa eta korrupzioari stop!! Alkaterik onena Herria! Aurtengoa baietz geurea!!! Ezker Abertzalea aurrera!

**H.O.A.**

## Hautagaietako dekalogo

Etixerat-ek apirilaren 25ean agintzera eman duen bezala, dekalogo bat atera du, non bertan lbaetako Manifestuaren puntuak jasotzen diren. Honekin lortu nahi dena zera da, dekalogo harturik, alderdi desberdinetako hautagaiena joan, beraien adostasuna eta konpromisoak eskatzeko.

**ETXERAT**



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizaria.com  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizaria.com

Argitaratzailea:



**ELGOIBARKO IZARIA**  
3.000 COP. E. P. P. P. P. P.

**ZUZENDARIA** Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.645 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855





## KEXAK

• **San Pedro auzoko tunela zaborrez beteta dago:** "San Pedro auzoko tunela zikinkeria eta traste zaharrak gordetzeko erabiltzen dute. Puskatutako farolak eta beste hainbat tramankulu daukete han botata eta ez ditu inork jasutzen. Dagokionak, mesedez, txukundu dezala ingurune hau."



• **Urasandi auzoko goialdea ez dute garbitzen:** "Urasandi auzoan, 47. portalaren atzeko aldean zikinkeria mordoa dago. Sasiak eta belarrak luze-luze daude. Aspaldian ez da inor etorri ingurune hau txukundu eta garbitzera. Udaletxera behin baino gehiagotan jo dugu eta ez digute kasurik egiten. Ez dago esku-biderik, denok ordaintzen ditugu zergak."

• **Udaletxeko langileek euskaraz jakin beharko lukete:** "Joan zen astean udaletxera joan nintzen eta atea itxita zegoenez, txirrina jo nuen. Emakume batek erantzun zuen, udaltzain bat izango zen seguruenik, eta erderaz hitz egin zidan. Nik euskaraz galde-tu nion eta hala ere, berak gazteleraz jarraitu zuen. Lotsagarria iruditu zitzaidan, baina ez da lehenengo aldia izan. Udaletxeko langileen lehenengo hitza euskaraz izan beharko litzateke, eta lehenengoa ez bada, bigarrena bai. Udaletxean euskaraz ezin mintzatzea penagarria da."



## TXALOAK

• **Ikastolatik Jose Gurrutxaga Haur Krosa antolatzen lagundu zieten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete:** "Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den Igandeko XIV. J. gurrutxaga krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Egotoki Elkarte, Mintxeta Atletismo Taldea, Lagun Taldea txirindulari Elkarte, Meknosa, Bolintxo, Lete, Etxekit, Txiriboga, Julio Bueno edariak, Muebles Antón, Lanbroa taberna, Castrillejo estankoa, Fadedk ilea-paindegia, Iturri taberna, Jai Alai taberna, Gorostiza liburudenda, Muruamendiaraz gozotegia, Goki erreformak, Gabi, Julene, Orbea, Osoro Zapatadend, Garate Jantzidenda, Xigortze, Ecuador bidaiak, Iriondo Kirolak, Aterpe taberna, Lombok, Zurich Aseguruak, Urnabitza Aseguruak, Iriondo taberna, Urkiola, King-Kong kafetegia, Mugape S.A, Sara Jantzidenda, Harzubi jatetxea, Joggers, Telepizza, eta batez ere Elgoibarko Udala, El Diario Vasco, Alzolako Urak, Antxustegi Zeramikak, Eroski, Opel-Hyundai, Netto, Urrategi Elektraaiak, Udal Kirol Patronatua, Goiti, Danobat, Estarta, Ideko eta babeslea izan den Kutxa. Bestalde, eskerrak beronenak parte hartu duten neska-mutilei."



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNOREN *Luma*

### Beti aurrera

Atzera begiratzea ikara ematen zion gorbatadun gizonari. Txikitatik erakutsi zioten bizitzari aurpegira begiratu behar zaiola, begietara, beldurrik izan gabe. Sinetsita zegoen atzera begiratzeari heriotza ekarriko ziola, harri bihurtuko zela, akaso norbaitekin talka egin eta erori egingo zela. Horregatik joaten zen beti burua tente, aurrerantz begira, jendearekin batera erreparorik gabe so eginaz. Eta horrela ohitu zen beti lehena izaten, aurrean joaten, aurrea besterik ez baitzen existitzen berarentzat. Halako batean norbait deika hasi zitzaion. Bere atzetik iristen zen ahotsa. Baina gorbatadunak ezin zuen atzerantz begiratu. Burua biratuz gero zerbait larria gertatuko ote zitzaion beldur zen. Ahotsak bere atzetik jarraitu zuen, bere belarrietan sartu zen, bururainoko bidea egin zuen eta mamorro batek bezala kosk egin zion nerbioren bati. Gizonak aurrera begira jarraitu zuen halere, baina doinu madarikatu hark burua behin eta berriz kolpatzen zion. Ahotsak ez zuen sekula bere barnetik alde egin. Bizitzari begietara begiratzeari jelskor, haizeak ez zion atsedetik eman gorbatadun gizonari.

*Jasone Osoro*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### BELEN ELORZA

KARKIZANO  
DENDAKOA

#### • Zein da egungo tendentzia lenterian?

Guk ditugun artikulutan, linea klasikoa.

#### • Barruko arroparako kolore eta ehun bat?

Beltza eta algodoia.

#### • Aukeran: kamisoia ala pijama?

Nik kamisoia gustukoagoa dut. Hala ere, salmentei dagokionez, esan, pijama gehiago saltzen dela.

#### • Zer motako bikini eta bainujantziak datoz uda honetarako?

Kolore askotarikoak: bereziki tonu marroiak, naranja eta horiekin konbinatuta. Aurtengoan, estanpatuak, loreak eta marradun bainu jantziak indartsu datoz.

#### • Ehun berritzaile bat?

Mikrofibra, denbora asko darama merkatuan, baina, dextente hobetu da. Niretzat, oso ona den beste ehun bat, modala da, nahiz eta ez den asko erabiltzen.

#### • Zer dituzu nahiago: pantiak ala galtzerdiak?

Pantiak.

#### • Herritarrek garrantzia ematen al die barruko arropari?

Bai. Bai, emakumezkoek eta baita, gizonzkoek ere.

#### • Mutilen artean boxerrak ala slipperrak nagusitzen dira?

Boxerrak, dudarik gabe.

*"Aurten ixa-ixa, baiña datorren urtian seguru baietz!"*



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

## [AKORDATZEN NAIZ]



**ITZIAR AJURIA**

1924an jaioa

### «Familixia»

**S**an Bartolome kalia bizi giñan gu. Amak 6 seme-alaba izan zituan, baiña nik bat ez naban ezagutu, nere aurrekoa, Loretxo. Nere ondorengua 8 urtekin hil zan, tifusakin. Orduan, gazte asko hiltzen ziran tifusakin. Aittan anai bat apaiza zan Berizen, hantxe egoten giñan. Ni jaten mizkiña nitzan, eta hara juan udan hilla-beterako, eta meiorauta bueltatzen nitzan beti. Osaban etxian lagun asko alkartzen giñan. Itxuria danez, bandua jota zavan igeri egittera ez juateko,

baiña haura jun egin zan, eta izardittuta eta dana bustitta etorri zan etxera. Dana juntau jakon. Zikinkerixaren bat ere tragau zaban.

Gabaz eruan zeben kanposantura, kontajiatzeko peligrua zaguala tal. Etxetik kanpora egon giñan egun batzuetan. Azkenian lau izan giñala esan leike, hiru mutil eta ni neu. Oñ neu bakarrik geratzen naiz, gaztiena. 9 lagun gaude familixako erretratuan, gurasuak, aittita-amamak eta seme-alabak, baiña neu bakarrik bizi naiz.



## [GURE BERBAK]

### Fonologia 6: bustiduria II

Pasa dan astian bustidura kontuekin hasi giñan, eta gaur ere horrekin segittuko dogu. Beste hizkuntzetatik ekartzen dittugun hitzetan ikusten da, bestiak beste, bustiduriak zer indar daban. Eta esan bihar da, sasoi bateko mailleguzko berbetan gehixago egitten zala bustiduria gaur egunguetan baiño: *ofiziña*, *gasoliña*, eta holako ahoskatziak lehen nomalaguak ziran gaur egun baiño. Gure umiak ere [aita] gora eta [aita] behera jarduten debe gaur egunian, kalia behintzat. Alper-alperik izaten da askotan esatia [aitta] zeñ [aitxa] esatia nahixago dogula; gaiñera, polittaguak eta goxuaguak dira nere ustez, bustidura eta guzti. Baiña ez dago zer egiñik batzuetan... T-ren bustiduria dala ta, bi aukera eman berri dittut: [aitta] eta [aitxa]. Esan bihar da jatarrizko bustiduria *-IT-* dala (*dittu*, *aitta*, *maittia*...). Hala ere, aspaldi samarreko urtietan zabaltzen hasitta dago *-ITX-* bustidura, kalia, bai adiñekuen jardunian, bai eta (batez ere) gaztien jardunian ere. Basarriko hiztun batzuek kaletarren ahoskera berri hori salatzen debe elkarizketetan. Hona adibide bat:

*"Nik askotan esan izan javet tallarian ibiltzen giñanian da: "zuek eztaizue ez erderaz eta ez euskeraz". Egixa dok, geñera. Gauza bat **eittia** esan bihar dok, eta **eitxia** gaizki dagok. Hau geizki dagok. Ume bat ero, igual dok nobixiari edo andriari esan bihar badiok **maixia!** **Maittia** esan bihar badiok ere, **maixia**."*

Jesus Mari Makazaga

**Malape taberna**  
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60  
tel. 943 74 19 43

© malape  
E. Iguibon 341345

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

2003-2007

## UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA

*Hilabete falta da maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetarako eta BARRENen hasi gara gaia jorratzen. Hiru orrialde hauetan Udal Gobernuaren lau urtetako balantzea jaso dugu. Gure nahia, Marivi Agirregomezkorta alkatearekin hitz egitea zen, baina bere erabakia guri elkarriketarik ez ematea izan da. Udal Gobernuaren balorazioa, beraz, EAJ eta EA alderdiek egin digute.*

**Legealdia bukatzeaz dagoenean, zein da orokorrean egiten den balantzea? Nola gelditzen da Elgoibar lau urte pasa ondoren?**

**EAJ:** Balantzea guztiz ona da. Herriaren argazki orokor bat aterako bagenu, gazteetatik helduetarainoko hezkuntza eskaintza, lan mundua edo enpresen egoera, kultura-kirol eskaintza eta partehartzea, bizi kalitatea, azpiegiturak eta abar, ez genuke esango zer egin edo hobetu beharrik ez dagoenik, baina dagoena maila onekoa dela ados egongo ginateke. Eskerrak eman nahi genizkieke herritarrei.

**EA:** Aldaketak izan dira; herria txukundu egin dela esan dezakegu nahiz eta egingutako gauza batzuk ez izan oso egokiak.

Proiektu batzuk martxan daude eta argi dago oraindik ere egiteko asko dagoela.

**Zeintzuk izan dira Udal Gobernuak izandako ekimen garrantzitsuenak?**

**EA:** Euskara Biziberritzeko planean sartzea ekimen garrantzitsua izan dela iruditzen zaigu, eta honen ondorioz abian jarritako euskara planak. Marko orokor gisa, balio handiko tresna da EBPN, udalei era bateratuan funtzionatzeko aukera ematen die-lako eta komunak izan daitezkeen ekintzak identifikatu eta elkarlanean antolatze-ko aukera ere ematen duelako.

**Zeintzuk dira mahai gainean gelditutako gaiak?**

**EAJ:** 2003. urtean aurkeztutako programaren arabera garrantzitsuena bete da

edo aurten burutzeaz dago. Herriak gune biziak baitira eta beti agertzen dira egin-behar eta erronka berriak. EAJtik beti izan dugu oinarritzat erronka eta behar berriei aurre egiteko konpromisoa eta horrela izango da jarraian ere.

**EA:** Aparkalekuen arazoa eta lurzoru industrialaren egokitzea, martxan dago. Esate baterako, Balle Goitti inguruko poligonoa.

**Etxebizitzari dagokionez, zeintzuk izan dira Udal Gobernuaren politika eta lortuak?**

**EAJ:** Ziklo bat bukatzeaz dago azkeneko zortzi urtetako eraikuntza berrien beharra betetzeaz baitago. Politika sozialen bitartez eraiki eta eskaini da etxe kopuru nabarmen bat, baina zorrotzago jokatu beharra





dagoela uste dugu bereiziki gazteen emantzipazioa ez dezagun kolokan jarri. Lehenengo etxebizitzak suposatzen duen eskubidea lehentasun bihurtu behar da irabazi handien eta inbertsioen gainetik. Aurrerakoan hartzen diren neurriak, bereiziki, lehenengo etxebizitzaren beharra dutenengan oinarritu beharko dira, bigarren etxe bat edo inbertsio gisa erosten dutenengatik bereiziz. Eraikin berrien inguruan politika zorrotzago baten bidez, tasatuak, alokairukoak eta librean artean bereiziz, bigarren eskuko etxeen bitartez, egoera txarrean daudenak berrituz eta abar.

**EA:** Batez ere, Babes Ofizialeko Etxebizitza asko egiten laguntzea, gainera esan behar da, oraindik gehiago egiteko asmoa dagoela. Era berean, interesgarria irizten diogu eraikitzaileei etxebizitza berriak egiteko aukerak emateari.

#### **Gizartegintzari dagokionean?**

**EAJ:** Gizartegintza arloan denok ditugu helburutzat laguntza eta zerbitzu egokiak, kalitatezkoak eta beharretara egokituak. Alde batetik, Foru Aldundiarekin eta bestetik herri mailan gizartegintzan dihardutenekin elkarlanean sakondu beharra dago. Buru belarri aritu da gure Udaltaldea, arlo hauetan guztietan gizartegintza arloan, nagusiak, etorkinak, pobreak, gaixoak, hezkuntza berezia, lan mundurako sarrera arazoak topatzen dituztenentzat, biolentzia, eta abar. Nota altuarekin bete dugun arlo bat dela uste dugu.

#### **Eta euskara arloan?**

**EAJ:** Ondorengo belaunaldiei transmititzea, erabilera indartu, hizkuntza eta kultura aberastu, azken batean euskaraz bizi ahal izatera bideratuko ditugu helburuak. Hurrengo belaunaldiak bai lan munduan bai kalean... euskaraz bizi daitezen ahalegindu behar gara. Elgoibarko Izarrarekin egindako elkarlana aipagarria da.

**EA:** Legealdi honetan euskararen erabilera bultzatzea izan da erronkarik nagusia. Azpimarragarriak dira EBPnren baitan abian jarri diren egitasmoak: sentsibilizazioa areagotzeko (merkataritzan, lan munduan, aisialdian, kirolean, euskararen transmisioan...), herritarrentzako dirulaguntzak (euskara ikasteko, errotuluetarako, aplikazio informatikoetarako)... Ezin aipatu gabe utzi, gure herriko berbetiaren azterketa eta argitarapena. Eta bukatzeko, Udala eta Elgoibarko Izarra-



## “Aparkalekuen arazoa eta lurzoru industrialaren egokitzea martxan dago”

EA

ren arteko elkarlanak emandako fruitua ere lorpenen artean sartuko genuke.

**Hiritarren Partehartzeari dagokionez, zer nolako balantzea egiten du Udal Gobernuak? Elgoibartarrok ba al daukagu biderik udal bizitzan parte hartzeko?**

**EAJ:** Gaur egun tresnak eta baliabideak daude hiritarrak herri eta udal bizitzan parte har dezaten. Hor dugu Agenda 21, herriko biztanle guztiei zabaldua, web gunea, edo edozein arloko elkarte herrigintzan lanean. Jendearen partaidetza gero eta garrantzitsuagoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Aberastasuna ekar dezake denontzat. Nola bideratu eta jendea animatu? Hori izango da gure erronka garrantzitsuenetakoa bat.

**EA:** Batzordeak herritarrentzat irekiak izan arren, gutxi dira aukera horretaz baliatzen diren herritarrek. Hala ere, badira herritarrek batzordeburuekin bilerak eskatu eta izan dituztenak.

**Nola ikusi du Udal Gobernuak oposizioak egindako edo ez egindako lana?**


**EAJ:** Oposizioarekin erlazio ona eduki dugu legealdiaren zehar. Adibide gisa lege-

aldian zehar aurrekontuek izan duten babesa.

**EA:** Ondo egindako oposizioaren lana benetan aprobetxagarria izan liteke.

**Arazo puntualak errepasatuz, nola ikusten da orain merkadilloaren gatazka? gauzak beste modu batez egin behar izan al ziren?**

**EAJ:** Momentu baten gatazka izan bazen ere eta herriko giroa gaiztotu bazuen ere, gaur egun kokaleku egoki eta eroso baten dagoela esan dezakegu. Herriko merkataritza, personalizatutako tratua eta kalitate handiko produktu eta zerbitzuen arteko konbinazio batera egokitzea, kontsumitzaileen beharretara egokitutako eskaintza bat eman ahal izateko izan behar da gaur eguneko erronka. Merkatal eskaintza bultzatu beharra dago hiritarrok behar duguna herrian erosi dezagun. Gauzak beste era batera egin behar ote ziren? Behar bada bai, baina galdezka hasita, oposizio alderdien jarrera zeren bila zebilen? Hiritarren nahia babestu edo Udal Gobernuarekin eztabaida beraien interes politikoarengatik?



**EA:** Bere garaian esan genuen bezala, gauzak hobeto egin zitezkeen.

**Beste arazo bat: "botellon" delakoa. Udal Gobernuak ez ote duen asetu iruditzen al zaizue?**

**EAJ:** Neurri zorrotzak hartu behar izan ziren eta eduki dute bere eragina. Gaur egun arazoa nabarmen gutxitu da. Arazoaren konponbidea ez dago udal gobernuaren esku soilik. Azterketa batek BARRE-Neko atal bat baino gehiago beharko luke gai honen inguruan. Arazo honen inguruan zeresana eta ardura duten zenbait agente daude, beraien, gurasoak, inguruko herriak (bertatik datoz eta bertara itzultzen dira Elgoibarren ordu batzuk igaro eta gero), ostalaritza, hezkuntza, komunikabideak, eta abar. Zein egoerak eragiten du jokaera mota hori? Arazo hau gairiditu ostean beste batzuk agertuko dira eta arduraz aurre egingo diegu.

**EA:** Arazo hau orain dena baino askoz larriagoa izan da, nahiz eta oraindik ere hor egon. Hala eta guztiz ere, arazoa ez da gure herrian bakarrik ematen, oso orokorra da. Gainera, gauza asko daude hobetzeko.

**Hirugarren arazo puntuala: herri barruko trafikoa. Zergatik ez zaio irtenbiderik eman?**

**EAJ:** Ados trafikoa arazo bat dela, baina ez arazoari irtenbiderik ez zaionik topatzen. Mugikortasunarekin eta aparkale-

kuekin lotua dagoen arazo bat da. Herriko gune bakoitzean arazo desberdinak ematen dira autoei dagokienean, eta herritarrok ere arazo mota desberdinei egin behar izaten diegu aurre. Datozen egunotan, herri barruko mugikortasunaren inguruan neurri berri batzuk ipiniko dira abian. Batzuen gustukoak eta beste batzuen disgustukoak. Hiri barruan auto gutxiago ibiliko da oinezkoen eta biztanleen onerako. Arazoa konpondutzat eman beharko genuke hala bada? Ez. Badakigu helburua zein den: trafiko gutxiarekin mugikortasuna hobetu. Lanean jarraituko dugu.

**“Botiloiaren arazoa nabarmen gutxitu da”**

**EAJ**

**EA:** Helburua herrigune osoa oinezkoentzat izatea da. Hartutako neurriak bide horretatik doaz, baina oraindik neurri gogorragoak hartu beharko dira oinezkoen eskubideen alde.

**Zer nolako eragina izan du legealdian ezker abertzalea ez egoteak?**

**EAJ:** Ez du lagundu. Aldi berean, esan beharra dago ere ezker abertzalearen aldetik ez dutela elkarlanera eta adostasunera bideratutako egoera bat erraztu. Gogoratu beharra dago EAJ-PNVko eta EAko zinegotziek jasan behar izan zuten presioa. Onar ezina da guregan jartzea ezker abertzalea ez egotearen ardura.

**EA:** Herriarentzat kaltegarria izan da, eta guretzat, are kaltegarriagoa.

**Nolakoa izan da harremana eragile sozialekin? Nolako balantzea egiten duzue?**

**EAJ:** Aberasgarria izan dela esango genuke. Adibide gisa Gaztetxearen inguruan izan den erlazioa aipatuko genuke. Era-kunde guztien eskaerak eta ekarpenak bideratzen saiatzen jarraituko dugu, herriaren beharrak aztertzeke tresna baliagarri bat delako, konponbideak bideratzeko eta herritarren partaidetza lortzeko.

**EA:** Guregana jo duten guztiekin harremana oso ona izan da.

**Otik 10era kalifikatu beharko bazenu Udal Gobernuaren lana, zein nota jarriko zenikete?**

**EAJ:** Nahiago genuke puntuaketa zuek (BARREN) egingo bazenute.

**EA:** Hau herritarrek egin beharko duten zerbait dela deritzogu. Hala eta guztiz ere, gure iritzi, gauza batzuetan nota ona jarri ahal izan arren, beste arlo batzuk, argi eta garbi, gairiditu gabe gelditu dira.

Maiatzaren 1ean Langilearen Eguna izango da.

## Zein esanahi dauka zuretzako maiatzaren 1ak?

**JABI AGIRRE**  
Mekanikoa  
48 urte



“Instituzionalizatutako jai egun bat da. Saiatzen dira zerbait aldarrikatzen, baina jai eguna izateari garrantzia gehiago ematen zaiola iruditzen zait.”

**JABIER IBAÑEZ**  
Kaldereroa  
46 urte



“Garai batean maiatzaren 1ak zeukan esanahia galdu egin da. Gaur egun aldarrikapen gutxi egiten dira, jendeak kanpora joateko aprobetxatzen du.”

**JESUS ZABALA**  
Gerentea  
64 urte



“Niri egun horrek ez dit ezer esaten, ez dugu ezer berezirik egiten. Egutegian dago eta jai egin behar da, besterik gabe. Aurten zubia daukagu gainera, beraz, hobel!”

**NEREA ANSOTEGI**  
Erizaina  
33 urte



“Nire ustez jende gehienak jai egun bezala hartzen du egun hau. Urte hasieran egiten da lan egutegia, eta zubia dagoela ikusita, gehienak kanpora joango dira.”

## [ BAI ala EZ? ]

Gustura al zaude zure bizitza sexualarekin?

**BAI %72**

“Bai, orokorrian gustora naio, baiña daramangun bizimodu-martxa honek uste dot kalte haundia egiten digula horretan ere: estresa eta sexua ez dira konpatiblerik.”

**EZ %28**

“Ez. Bikote finkorik ez daukagunontzat zaila da egoera. Euskal Herrian ligatzea oso zaila da, eta zer esanik ez, sexu harremanak edukitzea.”

Datorren asterako... **Apirilaren 28an Lan istripuen aurkako nazioarteko eguna da.**  
**Nahikoa egiten dela uste al duzu lan istripuak gutxitzeko?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!



## [ PROTAGONISTA ]



Igor **Elizburu**

Igor Elizburu elgoibartarrak Gipuzkoa eta Euskadiko handbike txapelketa irabazi zuen pasa den zapatuan Andoainen. 9'09"80ko denbora behar izan zuen 4,7 kilometroko zirkuitoa burutzeko. Igorrek, hirugarren aldiz jarraian lortu du proba hau irabaztea. Guztira lau handbikelari atera ziren lasterketara, baina hiru iritsi ziren mugara. Datorren astean Bilbon egingo den Bizkaiko Biran parte hartuko du. Hiru eguneko lasterketa da, baina bera bi egunetan lehiatuko da. Txirrindulari oso onak arituko dira bertan eta bere nahia ahalik eta denbora onena egitea da.

## [ NOTIZIA ]

### Iñaki Odriozola eta M<sup>a</sup> Juli Arregi dira EAE eta EAS alderdien hautagaiak



**D**agoeneko ezagutzen ditugu maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetarako alkategai guztiak. Aste honetan bertan argitaratu dira zerrendak. Elgoibarko Abertzale Sozialisten zerrendaburua Mari Juli Arregi izango da eta Eusko Abertzale Ekintza alderditik Iñaki Odriozola izango da alkatetzarako hautagaia.

#### Elgoibarko alkategaiak

Elgoibarren beraz, zazpi alkategai izango ditugu eta horien artean aukeratu beharko da: Alfredo Etxeberria (EAJ), Jon Peli Uriguen (EA), Unai Zulaika (EB-Aralar), Iñaki Odriozola (EAE), Mari Juli Arregi (EAS), Ovidio Campello (PSE-EE) eta Javier Nuñez (PP).

## [ ZENBAKIA ]

# 606

Elgoibarko Abertzale Sozialista taldeak 606 sinadura bildu ditu. Udal Hauteskundeetan parte hartu ahal izateko 500 sinadura behar zituzten, beraz maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetan izango dira. Taldeetik eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei, eskaintako babesagatik.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Gustatzen al zaizue argazki hau? Atentzinoa eman digu, eta zuei erakustea erabaki dugu. San Roke auzoko lorategi bat da, orain akaso haritegi deitu beharko diogu. Lorak kendu eta harriak jarri dituzte, harri borobil handiak. Artea izango ote da? Herrian berdeguneak falta direla eta dauzkagun apurkak harritz betetzen hasi dira. Harriaren eta ladriloaren garaian gaude Elgoibarren. Harridura piztu du honen herritarrengan. Jendeak aho zabalik begiratzen zuen harritz beteriko lorategi bitxi honetara. Batzuk gustuko dute, besteek ez. Eta zuk?

## Udal Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du EAJk



**M**aiatzaren 27an egingo diren Udal Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du EAJk. 20 lagunek osatzen dute zerrenda eta 11 emakumeak dira. Aurpegi berriak dira nagusi, izan ere, aurreko legealdiko bi izen bakarrik agertzen dira zerrendan. Alfredo Etxeberria izango da alkategaia, eta hauek dira gainontzekoak: Bittori Zabala, Jon Zubiaurre, Ricardo Garate, Eloisa Zubiaurre, Manu Astray, Alberto Iriondo, Maritxu Loiola, Ane Beitia, Marisa Larrañaga, Ana Fernandez, Jon Galarraga, Cristina Santolaya, Elisabete Amesti, Iñaki Beristain, Amaia

Arrieta, Jose Mari Kortaberria, Susana Azpilikueta, Juan Iturbe eta gloria Barrutia.

### Programaren oinarriak

Alfredo Etxeberriak bere alderdiaren punturik garrantzitsuenak azaldu zituen. Besteak beste, Plaza Txiki ingurunean aisialdirako parkea, aparkalekua eta Aita Agirre eraikinaren erabilera aipatu zituen. Zaharren egoitza herritarren beharretara egokitzea eta Kirolegia berri eta handitzeko asmoa ere azaldu zuen. Azkenik, Sallobenterako bide gorria egiteko proiektuaren berri eman zuen.

## Plaza Txiki inguruko OTA zerbitzua martxan da



Astelehen goizean jarri zuten martxan Plaza Txikiko OTA zerbitzua. Aste honetatik aurrera ordu eta erdiz bakarrik aparkatu ahal izango da autoa bertan, eta tiketa jartzea derrigorrezkoa izango da. San Frantzisko iturri gaineko zonaldea, hau da, marra horiz margotutako gunea zamalanetarako izango da. Asteburuetan ez da OTA zerbitzurik egongo. Ingurune honetan lan egiten duten pertsonen 90 minutu baino denbora gehiago aparkatu ahal izateko txartela eskatu dezakete udaletxean.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Bertso jaialdia Elgoibarko ikasleekin

Elgoibarko ikastetxeetan Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektuan parte hartu duten ikasleen emanaldia izango da maiatzaren 2an, asteazkena, arratsaldeko 18:30ean Herriko Antzokian. Gipuzkoako Bertsozale elkartearen bidez lantzen den proiektu bat da, bertsogintza erabiliz ahozko komunikazioa lantzea helburu duena. Ikasturtean zehar, hainbat bertso eta ariketa egin dituzte ikasleek, eta horren erakusgarri izango da eskainiko duten jaialdia. Sarrera doan izango da.



### Europar Enpresa Gazte saria IME 06 enpresarentzat

IMHko ikasleek garatu duten IME-06 Elkarte Kooperatiba proiektuak eskuratu du Gipuzkoako ekimen onenaren saria, Eusko Jaurilaritzako EJE Europar Enpresa Gazte sariaren lehen edizioan. IME 06 enpresa IMHko 8 ikasleek osatzen dute. Ekintzailearen astea izan da hau, eta Donostiako Kursaal aretoan egin zen ekitaldian jaso dute saria.



## LIBURUEN HAUTESKUNDEAK ELGOIBARKO IKASTOLAN

### “Jara bikiak eta bikoteak” liburu irakurrienen artean



**L**iburuaren Nazioarteko Eguna izan dela aprobetxatuz, hauteskundeak egin dituzte Elgoibar Ikastolan. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzakoek beraien libururik gustukoena aukeratu zituzten. Euskaraz argitaratutako liburuak hautagai izan ziren eta horrez gain, gustuko ilustratzaileak ere bai.

Ekintza hau, irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahian egiten diren jardueren artean, bat gehiago izan zen. Bidenabar, ikasleek bozka prozesua ikasi zuten. Benetako partaide izan dira, izan ere, aukeraketa egiteaz gain, lehendakari, bokal eta idazkari lanetan eurak aritu dira. Boto emaiak sei kategoriatan banatu ziren. Lehenengo bostak gustuko liburuaren aukeraketari zegozkion eta azken kategoria, gustuko ilustratzaileari.

#### IKASLEEK HAUTATUTAKO LIBURUAK

- **Haur Hezkuntza:**  
“Zazpi antxumeak” (Mixel Murua).
- **Lehen Hezkuntza 1 eta 2:**  
“Krokodiloa” (J. Ormazabal).
- **Lehen Hezkuntza 3 eta 4:**  
“Kika super sorgina eta piratak” (Knister).
- **Lehen Hezkuntza 5 eta 6:**  
“Jara bikiak eta bikoteak” (Jasone Osoro).
- **DBH:**  
“Osaba Bin Floren” (Txiliku).
- **Ilustratzailerik onena:**  
Birgik Rieger.

#### “Familia: zailtasunaren kudeaketa prebentzio ikuspegi batetik” hitzaldia hilaren 2an


Gazteria Sailak, herriko ikastetxeekin batera lankidetzan antolatuta, “Familia: zailtasunaren kudeaketa prebentzio ikuspegi batetik” hitzaldia eskainiko du Aiora Perez de San Ramon psikologoaren eskutik. Hitzaldia datorren asteazkenean, maiatzaren 2an izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan.

#### Kiribilkaren hirugarren saioa

2 urtetik 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena, datorren barixakuan ospatuko da, Plaza Handian eta arratsaldeko 17:30ean. Euria egingo balu, hurrengo ostiralera atzeratuko litzateke.



#### “Mekong ibaia, bizitza Tsunamiaren ondoren” proiektzioa



Angel Cuedoren eskutik, “Mekong ibaia, bizitza Tsunamiaren ondoren” izenburuko proiektzioa eskainiko da, datorren maiatzaren 15ean, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan eta goizeko 10:00tik aurrera.

Ikusentzunezko emanaldi honetan, Angel Cuerdo eta Fabiola Jubinek Asiara eginiko bidaiari azaltzen da. Bikoaren asmoa, Mekong ibaia jaistea zen, eta bide batez, ibaiak zeharkatzen dituen zazpi

herrialdeak ezagutzeko: Txina, Birmania, Laos, Tailandia, Kanbodia eta Vietnam. Herrialde hauetan bameratzeko tramiak egiten ari zirela, ordea, inoizko tsunamirik okerrenak Bambu izeneko uharte txiki batean harrapatu zituen. Zorionez, bizirik atera ziren eta bidaiarekin aurrera egin ahal izan zuten. Bikoteak bizi izandako esperientzia, amets bat baino gehiago izan zen.





EZKONTZAK 07

# Ezkon soinekoa

## Andregaia ezkontzako izarra

**M**utilari gustatu edo ez, andregaia izaten da beti ezkontzako izarra, bera da protagonista nagusia. Ipuinetako printsesa eta ekitaldiko izar moduan, beraz, bere edertasun guztia erakutsi behar du. Egun horretan, mutilari bere emaztea izango denaz harro egotea tokatzen zaio.

### Soinekoa aukeratzen

Normalean, bakoitzak bere gustua dauka jantzietan, bai egunerokoa eta baita ekitaldi berezietarako ere. Norberaren estiloa ezkon soinekoan ere islatuko da seguruenik, izan ere, aspalditik hasita egongo da andregaia bere ezkon soinekoa nolakoa izando den pentsatzen. Aholku bezala; xumetasunaren dotoretasuna, linea

xume eta erosotasunarekin konbinatu behar da soinekoa perfektua izan dadin.

Andregaien soinekoei buruzko al-dizkariak eta diseinatzaile desberdinen katalogoak eskuratzea da lehenengo pausoa, momentu horretako tendentzia zein den ezagutzeko. Diseinatzaileak etengabe ari dira gauza berriak probatzen, klasikoa alde batera utzi gabe eta batzutan klasikotasuna baztertua ere bai. Ideiak hartzea garrantzitsua da.

Ondorengo pausoa, honelako esperientzia bizi izan duten adiskide edo senideen iritziak jasotzea da.

Ezkon soinekoa andregaiaren estiloari eta bere ezaugarri fisikoei lotuta egon behar da. Bere ezaugarri onenak indartu eta gutxien gustatzen zaizkionak ezkutatu behar ditu.



Loiola Hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPETIA  
Tel.: 943 81 56 08  
Faxa: 943 15 03 62



**DEBAPE**  
INPRIMATEGIA  
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.: 943 74 40 58  
• Faxa: 943 74 41 78 • debape@telefonica.net

**Imprenta Arrillaga**

Impremaketa: Offset  
Digitala

Ezkontza gonbidapenak  
Hileta oroigarriak  
Bisita txartelak  
Kartelak - afektak  
e.a.

Fotokopiak

Koloretan  
Tauribeltsen

Trenbide Kalea, 13 - behea. - 28 Posta Kutxatila 20070 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 74 01 87 - Faxa: 943 53 13 54 - Mugikorra: 677 42 55 80  
e-posta: arrillagas1@euskalnet.net



Laster ezkontzekotan bazara,  
jarraitu zuretzat antolatut dudan  
EDERGINTZA PLANA



P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32



# Ezkonberrientzako eskaintza berezia



# 2x1

**Erosi eztei-bidaia 1 eta eraman 2**

Orain, zure eztei-bidaia erosten baduzu **EROSKI**/bidaien "Ezkonberrientzako eskaintza berezia" kanpainan, **ERABAT DOAN** oparituko dizugu...

bidaiak bat **Paris**era

Informatu eskaintzaren baldintzei buruz gure bulegoetan



San Bartolome, 11  
20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 656  
Faxa: 943 742 273  
E-posta: v0610@viajeseroski.es

 **EROSKI** / bidaiak

*merezi duzu*





# Osagarriak

Beloa, lore sorta, belarritakoak eta zapatak

**E**zkon soinekoa gainontzeko apaingarriekin lotuta joan behar da. Osagarri nagusia beloa da. Antzina, andregaiaren aurpegia estaltzeko erabiltzen zen ezkontza erlijiosoetan. Tul edo enkajezkoa izaten da normalean. Kapelua edo apain-orrizia erabiltzen da beloa ilera lotzeko.

Diadema eta koroez gain, lorez eginiko apain orraziak, pasadoreak edo zintak erabiltzen dira ilea jasotzeko. Elementu hauek, beti ere, soinekoaren osagarri modura joaten dira. Lorek freskotasuna eta dotoretasuna eskaintzen dute, eta azkenaldian, diadema edo ileko bitxiak baino gehiago erabiltzen dira.

Zapatak ere beste osagarri garrantzitsu bat dira. Edozer eraman daiteke ezkontza egunean, beti ere, soinekoarekin lotuta badoa: sandaliak, eskarpinak, zapata forratuak...

Azkenik, belarritakoak ere kontu handiz aukeratu behar dira. Ezin dira oso deigarriak izan. Perla, distiratsuk edo harri bitxiak izaten dira ohikoenak. Beste aukera bat, urre edo zilar klasikoetara jotzea da.




## Emaztegaiaren lore sorta

Emaztegaiak hautatuko du lore sorta, bere gustu, soinekoaren estilo eta bere altuera kontuan izanda.

Emaztegai altu batek, ohikoa baino, lore sorta borobilagoa eta handiagoa eraman dezakeen bitartean, altuera txikiagoko emaztegaiei, lore sorta txikiagoa eramatea aholkatzen zaie, lore sortak ez ditzan estali.


Koloreari dagokionez, araurik ez dagoen arren, tonu leunak gailentzen dira: krema, salmoi edo zurriak.





Santiago Kalea, 14  
AZPEITIA - Tel.: 699 325 839  
www.oparion.com

- Ezkontza
- Ezkontzetarako gonbidapenak
- Ezkontza agurretarako opariak
- Bataio
- Lehen Jaunartze



## **I'DOS** edergintza



Giza Eskubideen parkea, 1-6  
Tel.: 943 74 34 40

## *Kala* LORADENDA



San Frantzisko, 24  
Tel. 943 744 516

**AZALEA**  
edergintza

Orain mikropigmentazioa  
eta laser depilazioa ere  
egiten dugu

Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10



**JOSE ANTONIO**  
ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 - Tel: 943 74 14 92



**ELENA**

ileapaindegia  
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 - Tel: 943 74 11 89

**IDAMA**

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

zurre eguna da

• **DONNA** •

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13  
Tel. 943 74 43 88



**NAHIA**

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 14 ·  
Tel. 943 75 51 01 · MENDARO



AGURTZANE

Ileapaindegia  
Solariuma

Santa Ana, 18 - Tel. 943 74 18 64

**Maria Urizar**

Ileapaindegia  
Solariuma

Errosario, 9-1 - Tel. 943 74 44 89

**Amagoia**

ileapaindegia

Tel: 943 03 38 35  
Mendarozabal, 4 beheka  
MENDARO



**HAIR'S**

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 beheka  
Tel: 617 988 130



**Txinak**

ILEAPAINDEGIA  
solariuma

Kalamua, 2 - Tel: 943 74 43 57



# Edergintza

## Azal perfektuaren bila



Dena egon behar da perfektu: loreak, soinekoa, jatetxea, meza, eraztunak, ilea, argazkiak... Baina egun horretan garrantzitsuen ezkongaien momentuko apainketa da. Denbora behar da, ezkontza aurreko hilabeteetan hasten da guztia. Oso garrantzitsua da azalaren itxura, bai gorputzeko eta baita aurpegikoa ere. Tratamendu hauek gomendatzen ditut:

### Aurpegia:

Aurpegi garbiketa: Ezkontza baino hilabete lehenago egitea da egokiena. Ondorengo tratamendurako azala garbi utziko dugu. Azal garbiketarekin zikinkeria kanpora ateratzen da eta ez da egokia ezkontza bezperan egitea, azalaren egoera ez baita estetikoki polita izaten: gorriuneak, marka txikiak...

Ur thermal tratamendua: Ezkongaiaren adinaren arabera eta azalaren egoera ikusita, lifting tratamendua egingo genuke ximurrak ezabatuz. Azala leundu, erlaxatu eta hidratatuko genuke 4 saiotan. Azken ezkontza bezperatan eta aurrekoak astean behin, azken hilabetean.

### Gorputza:

Alga eta lokatz bilketa + masaje erlaxatzailea: Ezkontza bezperan egin beharreko tratamendua. Ezkongaiak urduri egoten dira eta tratamendu honekin lasaitasun sentazioa lortuko dugu. Azala leundu eta tiratzen du.

Brontzeatu: Azal tonu egokia izan behar dugu ezkontza egunean. Egokiena, solarium bonoekin sesioak banatzea da. Sesioen aurretik azala prestatzeko tratamendua dago, kolorea uniformeki eta erazago hartzeko. C bitamina eta exfoliazioan datza.

Depilazioa: Ezkontza erabakia normalean denboraz hartzen da. Horrela bada, laser bidezko depilazioa da egokiena. Bestela, depilazio klasikoa, argizari bidez egiten bada, ezkontzaren astean egitea gomendatzen da.

Manikura-pedikura: Askotan kasurik egin ez arren, eskuek garrantzia handia dute, argazkietan protagonismo handia hartzen dute-eta: erramua eusten, sinatzen... Manikura frantsesa natural



eta dotorea da. Oinetan gogortasunak kendu, hidratatu eta masaje on batekin tentsioak ezabatu. Ezkontza egunean manikura frantsesa egingo genuke.

Betile eta bekainak: Begirada polit bat izateko, betileen tinta eta permanentea gomendatzen dit. Luzeago eta tenteago ikusten dira. Bekainak zaindu, forma eman eta behar bada, tintatuz. Ezkontza baino bi aste lehenago.

### Egunean:

- Manikura frantsesa
- Makilajea: flash anpoila eman azala tentsatzeko eta nekearen zeinuak disimulatzeko.

*Olaia Estetika*



	<ul style="list-style-type: none"><li>• Garbiketak</li><li>• Makilajeak</li><li>• Aurpegi-tratamenduak</li><li>• Gorputz-tratamenduak</li><li>• Solariuma (horizontala eta bertikala)</li><li>• Masajeak</li><li>• Manikurak</li><li>• Depilazioak</li></ul>
Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.	
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25	





☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991  
Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)



2 Suite jakuziarekin  
4 Gela hidromasajearekin  
Gela 1 elbarrituentzat egokituta

**WI-FI doan eraikuntza osoan**

250 pertsonentzako aretoa  
Era guztietako ospakizunak

**Gela bikoitza (denboraldi ertaina) 60 €**

**Eguneko menua 17 €**

**Karta 30-36 €**



## **DENBORALDIKO SUKALDEA**

Jon Odriozolak zuzendua

Berezitasunak:

**GARAICO EHIZA**





# Senargaiaren trajea

Helburua, dotorezia

**S**enargaiak ere, luzitzeko eskubidea du eta emaztegaiaren bikotekide bezala, bere parean egon behar du dotoreziari dagokionean eta gutxienez, janzkera egokia zainduz. Beraz, senargaiak emaztegaiaren estiloa xurgatu behar du, berarekin batera bikote perfektua osatzeko. Ongi jantzita joan nahi duen senargaiak, bi aukera ditu: "chaqué" delakoa edo betidanik ezaguna dugun trajea. "Frac" a, ez da hain egokia ezkontzetarako.



## "Chaqué" a

"Chaqué" a, klasikoena eta dotorena da, ezkontza tradizionaletarako egokiena, hain zuzen ere. Botoi bakarraz loturiko jaka gris luzeak eta marra beltzeko galtza grisak, txaleko grisarekin konbinatuak direnak, kutsu alai bat bereganatu dezakete, korbata koloretso, marradun edo orbandunen bidez. Estilo informalagoa lortzeko, txalekoaren koloreak ordezkatu daitezke edo betiko alkandora zuriari orijinalitate ikutu gehiago eman ahal zaio.

## Trajea

Trajeak, bestalde, ezkontzetako janzkera izarra izaten jarraitzen du. Baina, honek, ezin du ohiko trajea izan, hau da, egunerokoa. Aitzitik, bere dotorezia eta kalitatea agerian geratu behar da. Ikutu alaiagoa emateko, xehetasunekin jolastu daiteke. Esaterako, txaleko eta jakari kolorea eman ahal zaie, marra eta orbanen bitartez. Azken helburua beti, dotorezia da.

Oinetakoak, bestalde, beti beltzak izango dira, sekula ere ez, marroi kolorekoak. "Chaquéa" eramaten den kasuan, oinetakoak punta borobilekoak izango dira eta lokarriak. Trajearen kasuan, aldiz, oinetakoak punta luzekadunak izango dira. Azkenik, galtzerdiak, beltzak, luzeak eta zetazkoak izango dira.





# Kantabria *Jatetxea*



ARRATEko  
santutegiaren  
ondoan aurkitzen gara



*Edozein motako  
ospakizunetarako aukera*



*enpresa bazkariak, karta, ezkontzak,  
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,  
bataioak, jaunartzeak...*




Arrate Auzoa, 4  
20600 Eibar-Arrate  
Tel. 943 12 12 62





## JATETXEA

Loiolako Inazio  
Hiribidea, 47  
20730 AZPEITIA  
Tel: 943 15 16 16  
Faxa: 943 15 16 18  
[www.hotelloiola.com](http://www.hotelloiola.com)  
E-posta: [loiola@hotelloiola.com](mailto:loiola@hotelloiola.com)







*Joseba*  
JATETXEA  
FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 · AZKOITIA  
Tel. 943 85 34 12  
[www.josebajatetxea.com](http://www.josebajatetxea.com)

*Euskal arkitekturako eraikin  
nagusienetakoan,  
ezkontzak berezia  
izan behar duelako*




*XVI. mendeko  
jauregi gotikoan  
paregabeko paisaia  
batean,  
gaur egungo joerei  
erreparatzen dien  
kalitatezko  
euskal sukaldaritza  
klasikoaz gozatzeko  
aukera ematen dute*




**250 lagunentzako jantokia,  
ospakizun handietarako aproposa.  
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako bata,  
eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.  
Luntx-erako terraza aproposa.**





**ARAMBURU**  
BITXIDENDA



San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35



**943 744 451**  
Santa Ana, 44  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**943 603 194**  
Jose M<sup>a</sup> Altzibar, 6 - II. Blokea  
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

**ARNOPE**  **NAVIA**  
I N P R I M A T E G I A K

**LASA**  
JATETXEA




*Luxuzko eskaintza  
poltsiko guztien eskura*




**LASA Jatetxean,  
ezkontzaren unea  
sekula ahaz ez  
dezazun eta zure  
bizitzako oroigarri  
ahaztezina izan dadin  
lan egiten dugu.**

**Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: restaurantelasa.com • BERGARA**



## [ GOMENDIOA ]

### Ondo jan hobeto lo egiteko

Loaren trastorno askoren oinarrian elikagai batzuen osaketa eta okerreko elikabideak daude. Estatistikek diotenez, bost lagunetik batek ez du lo behar bezala egiten. Arrazoiak mila izan daitezke, baina elikadurak loaren baitan eragin handia du. Ondo lo egiteko afari arinak egitea komeni da.

#### Ez lo egiteko afariak

Honelako afari motak ebitatzea komeni da, ondo lo egiteko.

- Jateko astirik ez: Estresak eta antsietateak atseden edo loaldiari denbora ebatsi eta gorputza estres-egoerara bultzatzen dute. Horrelakoetan zernahi jaten

da noiznahi, hestekia eta aurrekuzinatua afariko ohiko elikagaia da eta afaldu ere berandu afaltzen du horrelako jendeak. Ordutegien doitasun ezak eta dietaren kaosak loan dute zuzeneko eragina eta horrek osasuna hondatu egiten du.

- Janari ugari: Afari ugariak, proteina-okela, arrain, arrautza- eta gantz-hesteki, gazta, saltsa edo frijitu- asko dutenek "bihotz erre" sortarazten dute, harik eta larriagoa, afariarekin batera alkohola eta kafea hartzen badira. Digestioa mantsotu egiten da eta zailago egiten zaigu lokartzeta. Afaldu eta berehala oheratzeak, bestetik, urdailean dagoen eduki azidoa hestegorrira igotzea errazten du. Ondoez

horrek ongi lo egitea galarazteaz gainera, loaldia eten egiten du batzuetan.

- Espezia ugariak: Espeziek dauzkaten printzipio aktiboek gorputzeko tenperatura altxatu egiten dutenez, lo egitea harik eta zailago bihurtzen da.

- Elikagai kitzikatzaileak: kafeinak, tearen teina eta teofilinak, txokolatearen teobrominak organismoan intentsitate ertain edo handiko euforia sententzia sortarazten dute, nerbio-loturak estimulatu dituzten konposatu kimikoak baitira substantzia horiek. Estimulatuak era jarraituan edo kopuru handian kontsumitzeak nerbio-higadura eta lo egiteko zailtasunak probokatzen ditu.



## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

## 2007KO UDAL AURREKONTUA

### 1.944.800 euroko aurrekontua dauka Mendaroko Udalak

**M**endaroko Udaleko Osoko Bilkurak onartuta, 1.944.800 euroko aurrekontua izango du Udalak 2007an. Aurrekontu honetatik 162.700 euro inbertsioetarako erabiliko dira. Mendaroko Udalaren egoera ekonomikoa oso justua dela aipatu dute agintariek, eta horrek baldintzatuta egingo dira inbertsioak. Udaleko zorra %22tik %16ra jaitea lortu den arren, sarrera arruntek ez dituzte gastu arruntak gainditzen. Udalaren helburu nagusia gastuak eta zorra murriztea izango da, ahalik eta diru gehiena herrian erabiltzeko.

#### Inbertsio garrantzitsuenak

Inbertsioen atalean obra desberdinak egiteko asmoa dauka Udalak, baina diru gehien eskatzen duena Alkortarako bidean uhinbikoak ezartzeko II. fasea da. Honetarako 34.300 euro erabiliko dira. Arau subsidiarioen dokumentua idazteko 25.000 euro gastatuko dira, eta Garagartzako hileriko nitxoak eta hezurtokia husteko beste 20.000 euro. Honekin batera, aipatzeko moduko inbertsioak dira Ospital azpikaldean egingo diren kirol ekipamendu berriak, haurrentzako parkeak eta Gaztegunerako altzariak erostea.



#### Bikotekako pala txapelketa

Gaztetxeak antolatuta, bikotetako pala txapelketa jokatu da datozen maiatza, ekaina eta uztailen. Norgehiagokak zapatueta jokatu dira, goiz eta arratsalde, Goñati frontoian. Partida hauetan teniseko pilota erabiliko da. Bikotekak eurak izango dira epaileak. Txapelketa honetan parte hartu nahi duten bikoteek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Txirristaka eta Ormola tabernetan edo Gaztetxean bertan eman daiteke izena.

#### 1957koen kinto bazkaria

1957. urten jaiotako mendaroarren kinto bazkaria egingo dute uztailaren 1ean Landa jatetxean. Interesatuak Leku-Ona tabernan (943756065) eman dezakete izena.

#### Lagun Betikoak

Mendaroko Lagun Betikoak Zaharren Egoitzak bazkidearen eguna ospatuko du datorren maiatzaren 4an. Eguerdiko 12:00etan meza izango da Azpilgoetako elizan hildako bazkideen alde eta 14:00etan bazkaria egingo dute Luzaide jatetxean. Egun honetako ekintzetan parte hartzeko maiatzaren 1a baino lehen eman behar da izena.

### 149.000 euro Trinitateko ermita berritzeko



Laster hasiko dira Mendaroko Trinitate ermita berritzeko lanak. Obra honek 149.000 euroko aurrekontua izango du. Trinitate ermita oso zaharkituta dago. 1981. urtean auzotarren eginiko lanari esker berrikuntza batzuk egin ziren, baina ez zen nahikoa izan. Udalak obra sakonagoak egin behar direla erabaki du. Ermita honi buruz ez dago datu askorik, baina 1105. urteko dokumentu batzutan ingurune honetan zegoen eliza bati buruzko erreferentzia egiten da. Dударik gabe, historia luzeko ermita dugu hau.



**KILI  
KLIK**



#### Ospas Gain futbol zelaia

Azken egunotan Ospas Gain futbol zelaia buruzko kartelak ikusi ditugu Mendaroko zenbait hormatan. Futbol zelaia ez erabiltzea salatzen da kartel horietan eta Udalarri galdetzen zaio zergatik ez

duen ezer egin. Kilimon futbol taldea desageru zenetik ez da futbolik ikusi Ospas Gaineko zelaian. Belarra luze eta erabat abandonatuta dago dena. Kartel hauekin zerikusirik ez daukala adierazi du EAJk.

## HAUTSKUNDEAK MENDARON

### MTI ez da aurkeztuko maiatzaren 27ko hauteskundeetara

12 urtez udaletxean lanean aritu ostean, eta azken lau urtez alkatetzan egon ondoren, Mendaroko Talde Independientea ez da Udal Hauteskundeetara aurkeztuko. Taldetik azaldu dutenez, euren helburua ez da inoiz boterea izan eta beraien bizitza pribatuak berreskuratu nahi dituzte.

EAK ere ez du hautagairik aurkeztuko Mendaron. Rosi Urainekin berba egin dugu, eta esan digunez, zerrendak osatzeko zailtasun handiak izan dituzte eta ezin izan dute beraien nahi bezalako zerrenda osatu. Jende berria nahi zuten eta ezinezkoa izan da.

#### IRUNE BERASALUZE

EAJ-PNV



EAJ Alderditik Irune Berasaluze izango da hautagai nagusia. 38 urteko emakumea da, ezkontuta dago eta bi seme-alaba dauzka. Lanbidez abokatu da. Berarekin berba egin dugu, eta Mendaroko alkate izateko aukeratzen badute, herritarren bizi kalitatea hobetzea izango da bere helburu nagusia. Bere ustez, Mendaro herri bezala eginda dago. Azpiegitura eta etxebizitza asko eraiki dira azken urteotan, baina orain, azpiegitura horiei erabilpena eman behar zaie. "Mendaroarrentzako zerbitzuak eskaintzea izango da gure lanik garrantzitsuenak".

#### JOSE ANTONIO RODRIGUEZ

PSE-EE

Hautagai honen iritziz, Udalaren eginbeharririk garrantzitsuenak Jaurilaritza presionatu eta Ospitalaren funtzionamendua hobetzea da. Aparkaleku arazoa, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren beharra eta haurrentzako parke falta ere aipatu ditu.

#### AGUSTIN URBIETA

MAS

Mendaroko Abertzale Sozialistak taldeak lortu du sinadurak biltzea eta zerrenda ere osatu dute. 16 sinadura behar zituzten Udal Hauteskundeetan parte hartu ahal izateko, eta 64 lortu dituzte. Agustin Urbietak izango da zerrenda-burua. Jaiotzez mendararra da, 51 urte ditu eta ezkongabea da. Agustin pozik agertu da herritarrek eskaini dieten babesarekin, baina zerrenda ilegalizatu egingo dutenaren susmoa dauka. Beraien ardatz nagusiak 4 izango dira: Mendaro euskalduna, ezkertiarra eta abertzalea eraikitzea, gatazka politikoaren konponbidean Mendaroko Udala subjektu aktiboa izatea, Udalbiltza bultzatzea eta herritarrei parte hartzeko aukerak zabaltzea.



#### ENETZ EZENARRO

EAE



Eusko Abertzale Ekintza alderdiak Enetz Ezenarro aurkeztu de alkatetzarako hautagai moduan. 30 urteko mendaroar gazte honek esan digunez, herritarren bozgorailua izan nahi dute udaletxean, sistema partehartzaile baten aldeko apustua egingo dute. "Herriak ondo funtzionatu badu, guztiok inplikatu behar gara. Hegoameriketara esaten den bezalaxe, *mandar obedeciendo* da agintzeko modurik onena".

#### CARLOS SAEZ GONZALEZ

PP

Alderdi Popularreko hautagaia Carlos Saez Gonzalez da. Alderdiaren prentsa bulegotik esan digutenez, ez da Euskal Herrian bizi, baina ez digute beste daturik eman. Zerrenda guztia kanpoko jendearekin osatu dute.



GERNIKA 1937

## BONBARDAKETAREN 70. URTEURRENA

*Gemikaren bonbardaketaren 70. urteurrena bete zen atzo. Hori dela eta, Manuel Jauregi, 84 urteko gemikarrarekin izan gara solasean. Manuelen gurasoak (aita elgoibartarra eta ama eibartarra), Gemikara joan ziren Lehen Mundu Gerran, eta han jaio zen Manuel, lau anai-arrebetatik nagusiena. Gemikako bonbardaketatik bizirik atera zen. Duela 55 urte, etorri zen Elgoibarrera bizitzera.*

**1937**ko apirilaren 26an, Francoren aliatu alemaniarren aire armadako Condor legioak Gemikako binztanlego zibilaren aurkako eraso bat burutu zuen. Astelehena zen, azoka eguna herri bizkaitarrean. Bonbardaketa eguerdiko hiru erdian hasi eta arratsaldeko zazpi erdiak arte luzatu zen. Ondorioz, Gernika txiki txiki eginda geratu zen eta datu ofizialik ez dagoen arren, bada 1.600 lagun hil zirela, esaten duen historiagilerik ere. Manuelen hitzetan: "Ez da inoiz jakingo zehazki hildakoen zenbatekoa. Gemikan 7.000 binztanle eta beste 4.000 errefuxiatu gipuzkoar zeuden garai hartan."

Egun hura nola oroitzen duen galdegin diogu Manueli: "Nik garai hartan, 14 urte nituen, artean gaztea izanik, beste hiru lagunekin batera, egun hartan mendian ginen. Gogoan dut oraindik motor zaratia; zelan itsaso aldetik etorri ziren abioiak, hirunaka eta nola hasi ziran bonbak jauritzen. Ni gehien izutzen ninduen, bonbek lurrera erortzean ateratzen zuten txistu hotsa zan. Demaseko lehegailuak ziran, 8 metroko diametroa zuten. Asturiar miliziar batek, dinamitaria zenak, kontuz ibiltzeko esan zigun eta laguntasun handia eman zigun".



### ALDEZ AURETIK GERNIKAN BIZI ZEN GERRA GIROA

Gemikan, gudarien "18 de Loyola" batailoia egonkortu zen. Baina hauek ez zuten antiaerorik, ezta artilleriarik ere. Horrelaxe, baieztatu digu Manuel berak: "Frankoren aliatuek nagusitasun handiagoa zuten aire armadan; gudariak, aldiz, gabez aritzen ziren erasoan. Sorube eta Amorebieta aldean ere, borrokaldi gogorak egon ziren".

Oroitara zi, martxoaren 30ean, Condor legioak Durangon burutu zuen bonbardaketan 127 zibil hilak suertatu zirela. Modu berean, Euskadiko tropak, hots, gu-

dariak, Intxorta mendian erresistentzia handia egin ondoren, Bilbaora zuzentzen ziren. Eskuindarrek ere, Gipuzkoa euren mendean hartu zutenean, Bilbaorantz jo zuten erreketen, italiar eta mairuen tropek, alegia. Honenbestez, Gernika momentu haietan, segada lekua zen. Gemikarrak oso kezkatuta zeuden, gerta zitekeenaren beldur. Hori dela eta, errefujioak eraiki zituzten: "Santa Maria kalean, hondarrez beteriko zakuekin eta pinu enborrekin babesleku bat egin zuten, baina, ez zuen askorako balio izan, 250 errefuxiatu hil baitziren. Pertsona bat geriraino lurperatuta zegoela ikusi nuen neure begiez. Guk he-

mendik gertu komertzio txiki bat geneukan, liburudenda eta mertzeria bat, eta su hartu zuen, dena kixkalita geratu zen. Lapurretak ere egon ziren”.

### **HERRI ZIBILAREN AURKAKO ERASOA**


“Gemikan, trenbidearen alde batera zeuden fabrikak osorik utzi zituzten, baita Amerikarren txalet bat ere. Fabrika hauetako zenbaitetan armak eta munizioak ekoizten zituzten. Aberatsen etxebizitzak, eliza eta kuartelak ez zituzten bota. Osterantzean, dena hautsi eta sutan errea izan zen” azaldu digu Manuelek. Kuartelak, orduko Gemikako komentuak ziren: Santa Klarako komentua; Jose Finatarrena (ospitale militarra), Karmelitena (ospitale militarra) Agustinoen fraide etxea (Loiola batailoilaren egoitza) eta La Merced, (Saseta batailoilaren gunea).

### **BONBARDAKETA ETA SARRASKIA**

Arratsaldeko hiru terdiak aldera, Burgos eta Gasteizko baseetatik abiatu ziren, hegazkinak lehegailuz beteta, erasoari ekin zioten eta elkarri errelebu eginez jarraitu zuten. Guztira, mila lehegailu jaurti omen zituzten. Manuelek adierazi digun bezala: “Bonbardeua oso luzia izan zen, abioiak, Vitorixatik 10-15 minutuko margen baten etortzen ziren Gemikara”. Gemika errautsetan geratu zen, pertsonen hiltzak eta gorpuzkiak lurcan zeuden sakabanatuta, baita animalia hilak ere: “20 asto baino gehiago ikusi nituen hilik, feria ospatu zen lekuan. Gure etxean ez zen inor hil. Udaletxe azpiko errefujiora joan eta senide guztiak elkar ikusi ginenean hura poza. Lagunak, ordeak, bat baino gehiago galdu nituen. Nire adiskide bat txahalaren bila amarekin batera zihoala, hil zen”.

### **GERRA OSTEA**

Gogorra izan zen: “arrazioanamendua gogorra eta etxekoen artean, lanean irabazitako dirua, jan ahal izateko erabiltzen zen eta gaizki jateko, gainera. Denboraldi batean ganbara batean egon ginen bizitzen. Beranduago, estatuek etxebizitza batzuk eraiki zituen eta haietako batera joan ginen, 70 ptako errenta ordaindu behar izaten genuen. Gure etxea altxatzea 10 urte kostatu zitzaigun. Franco hil zen eguna handia izan zen niretzat”.



*Junker 52a Condor legioak erabili zuen hegazkin motetako bat izan zen. Beronek 4.500 Kg lehegailu eramateko ahalmena zeukan.*

**“Gogoan dut oraindik motor zaratia, nola itsaso aldetik etorri ziren abioiak”**

MANUEL JAUREGI

### **IDEOLOGIA**

Manuelen arabera, Gemika batez ere, eskuindarren herria izan zen: “Frankotarrak eta karlistak gehiengoak ziren, eta zentro sozialistak gutxiengoak. Nire aita, gerrara joan behar izatek salbatu zen, “Solidaridad Trabajadores Vascos” elkarteko kidea izan zen, ELAkoa, baina, apur bat liberala zen. Nire osaba bat, berriz, preso eduki nuen. Nazionalista zen eta Santonñan hartu zuten preso, Caceresko Al Peral del Duero gartzelara eramanean. Hemen, bi urtez egon zen”.







## “Andinismo Vertiginoso: Del Chacaraju al Rondoy” Morkaikoren hurrengo saioa

Morkaiko M.E. ak antolatutako Udaberriko Mendi emanaldiak aurrera doaz eta datorren asteazkenean, Aritza Monasterio izango dugu protagonista bigarren aldiz. Saio honetan, azken urteotan Andeetan egindako igoyerarik ikusgarrienak erakutsiko dizkigu mendigoizale elgoibartarrak. Horietatik, azken igoeran, Rondoy mendian, hain zuzen ere, “Bagabiltza” zeneko bide berria ireki zuen Mikel Saez de Urabainekin batera, 2006. urtean. 30 ordu egin zituzten aldi hartan, irten zirenetik, beriz ere, kanpamendura iritsi ziren arte. Ekintza hau dela-eta, Espainiako Federazioaren urrezko pioleta jaso zuen. Saioa, oh bezala, 21:30ean, Musika Eskolan.

## ELGOIBARKO XIV. JOSE GURRUTXAGA KROSA

# 523 korrikalarik hartu zuten parte pasaden domekan ospatu zen krosean

Urte bat gehiagoz, Elgoibarko Ikastolak antolatutako kirol ekimen honek, harrera paregabea izan zuen, bai lasterketetan parte hartu zuten korrikalari kopuruari dagokionez, bai Plaza Handira eta inguruetara gerturatu zen herritar eta ikusle pilarengaitik ere.

Egun eguzkitsua lagun, aparteko giroa bizi izan zen pasa den domekan Elgoibarren. Guztira, 14 lasterketa jokatu ziren. Kirol ekitaldiari 2.000 urtean jaiotako nesken lasterketak eman zion hasiera eta 1991-1994 urte bitartean jaiotako neska

mutilen lasterketak eman zion amaiera aurtengo krosari. Mutilen kategorian irabazleak ondorengoak izan ziren: (1998) Antxon de la Arada, (1997) Jon Salegi, (1996) Iñaki Gabilondo, (1995) Unai Ortuoste, (1994) Urtzi Intxausti, (1993) Maike Aurelio, (1992), Mikel Anakabe eta (1991) Angel Lopez. Nesketan beriz, honatx: (1998) Alaitz Egaña, (1997) Ainhoa Etxeberria, (1996) Lorea Santiago, (1995) Garaiz Osoro, (1994) Nora Santiago, (1993) Otsalar Urain, (1992) Maria Hernandez eta (1991) Miriam Goy.





**Pintxoetan aukera zabala**

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76




**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

## ESKUBALOIA

### Lojantzi nesken taldea igoera lortzetik gutxira geratu da bigarren urtez



Iragan den astebukaeran, Lojantzi nesken eskubaloi taldeko jokalariek Barañainen ari ziren Espainiako igoerako partiduetan jokatuak. Maila oso ona erakutsi zuten arren, senior neskek ez zuten igoera lortzerik izan. Nahiz eta Lojantzi, Lagunak, eta Chapela taldeak bina garaipenekin puntuetara berdinduta egon, golen aldearengaitik, Lagunak talde nafarrak erdietsi du lehenengo postua eta igoera. Partiduetan oso berdintsuak izan zi-

ren. Ostiraleko partidua Lagunak taldearen aurka galtzea (24-22) lastima izan zen, irabazteko modukoa izan baitzen, baina, urduritasunak elgoibartarren aurka jokatu zuen.

#### Tecnifuelle taldea

Bi asteren buruan, maiatzaren 4, 5 eta 6an, senior mutilen txanda izango da. Igoera fasea Colindresen (Kantabrian) jokatu da. Ia mutilek zorte hobea goa duten.

### 41 lagun bildu ziren Morkaikoren Angulo-Orduña irteeran

Pasa den domekan, 41 lagun Plaza Handian bildu ondoren, Sierra Salvada aldera abiatu ziren mendizaleak. Araba zein Burgos elkartzen dituen Angulo portutik goizeko 10:00ak aldean ekin zioten oinez ibilbideari. Eguraldi ederra eduki zuten bide lagun, 12 gradu inguruko tenperatura eta zeru eguzkitsua. Ordu t'ardi inguruan Eskutxi mendatera iritsi ziren eta bertan hama-

retakoa egin zuten. Ondoren, beraien bidarekin jarraitu zuten eta Ungino mendatea alde batera utzi ostean, Tologorri gainerantz jo zuten. Tologorriko gailurrean 10 bat minutuko geldialdia egin ondoren, Iturigorriara jaitsi eta bazkaldu egin zuten. Senda negratik, herrenaren harriaren ondorengatik pasatuz, Lendoñogoitira jaitsi ziren 16:30ean, txangoari amaiera emanaz.



## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Eibar 0 - Haundi 0  
Elgoibar 0 - Aretxabaleta 1 (jub.)  
Beti Ona 2 - Elgoibar 3 (kad.)  
Elgoibar 1 - Añorga 1 (O. inf.)  
Hondarribia 2 - Elgoibar 2 (inf. txiki)  
Elgoibar 0 - Salvatierra 3 (neskak)  
Aretxabaleta 3 - Elgoibar 2 (aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Ancla Dosorpor 4 - Kenci 3 (Euskal liga)  
Kenci 3 - Getaria 2 (2. mail. gipuzk.)  
Zarautz 3 - Elgoibar 5 (jub.)

### ESKU PILOTA

Lagunak 22 - Bergara 5 (nagus.)  
Eskoriatza 22 - Lagunak 2 7 (nagus.)  
Lagunak 22 - Bergara 6 (jub.)

### ESKUBALOIA

Olasa 31 - Iezo 10 (inf. neskak)  
IMH 28 - Bera Bera 22 (kad. neska)  
Cometel 26 - Bera Bera 32 (jub. neska)  
Aloñamendi 21 - Txariduna 19 (inf. mutil.)  
Pulpo 8 - Tecnomec A 39 (kad. mutil.)  
Zarautz 22 - Tecnifuelle 31 (sen. mutil.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA

Mintxetan  
Zapata, 28  
10:00 Elgoibar - Urola (aleb.)  
11:45 Elgoibar - Orioko (kad.)  
17:00 Haundi - Basconia

### ARETO FUTBOLA

Kiroldegian  
Zapata, 28  
13:00 Elgoibar - MCM  
16:00 Kenci - Lagun Onak Galdakao  
ESKU PILOTA Ikastolako Frontoian  
Barixakua, 27  
22:00 Lagunak 1 - Arrasateko (nagus.)

### ESKUBALOIA

Kiroldegian  
Zapata, 28  
18:00 Tecnifuelle - Arrate (sen. mutil.)  
19:30 Tecnomec A - Gas Museo (kad. mutil.)  
Domekia, 29  
11:00 Pneumax - Aldaketa Hamasei

## Kiroldegiko oharra

Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak jakinarazten du Olaizaga kiroldegia maiatzaren 1eko zuzian ohiko ordutegia izango duela. Astelehenean goizeko 7:00etatik 13:30era eta 14:30etik 21:30era irekiko da eta maiatzaren 1ean, astearteak, 10:00etatik 14:00etara.



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxea salgai Urasandin. Bizitzera sartzeko. Duplex. 94m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela, despentsa, berogailua, dena kanpora. 237.399 euro/39, 5 milioi pezeta. ☎ **943740865**

▶ Etxea salgai Urasandin. Eguzkitsua, berriua, bista ederrak, dena kanpora. 4 logela, bi komun, egongela-jangela, sukaldea, trastelekua. ☎ **943740864**

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukalde-jangela. 120m<sup>2</sup>. Gas naturala. 60m<sup>2</sup>ko ganbara. ☎ **943741769**

▶ Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berriua. 3 logela, egongela, sukaldea. 2 komun eta arropa esekilekua. Garajea eta ganbara. ☎ **943740194**

▶ Urruzunon etxea salgai. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa eta irudiak ikusteko: [www.esnips/web/etxepolitata.com](http://www.esnips/web/etxepolitata.com) ☎ **660884060**

▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

▶ Pisua salgai Zumaian. Egoera onean. 2 logela, komuna, sukaldea, egongela. Bista ederrak. Dena kanpora. Erdialdean. Itzurun hondartzatik 500 metrora. 280.000 euro. ☎ **943537271**

▶ Pisua salgai Zumaian. Berriua. 2 logela. Itzurun hondartzatik 2 minutura. Jantzigela handia. Bista ederrak. Egongela. Sukaldea maila goreneko materialarekin. ☎ **943535214**

▶ Altzolan etxe ia berria salgai. 3 logela, bi komun, egongela-jangela. Garaje itxia eta trastelekua. ☎ **650243359**

### ALOKAIRUA

▶ Logela alokatzen dut.

☎ **943741881/635206436**

▶ Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699486458**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. ☎ **628764686**

▶ Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ **665735660**

▶ Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren. ☎ **652771184**

## [ AUTOAK ]

▶ Hyundai Pony autoa salgai. 151.000km. Egoera oso onean. ☎ **665714728**

▶ Renault Clio 1.5dci autoa salgai. 2004koa, 5.100km. Egoera onean, beti garajejan. ☎ **686762146**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ 2. eskuko bizikleta erosiko nuke. ☎ **653733217**

▶ Mutrikun txalupa salgai. 4,09x1,63. Puntala 0,70m, 1.300kg. Diter motorra, 9 zaldi. Fibratzko kaskoa, ur hustuketa berez egiten du. 4.000 euro. ☎ **665728662**

▶ Ordenagailu portatila salgai. 1.7GHz centrino, 1.6DRR, 80G disko gogorra. Egoera onean. ☎ **646160480**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Egunez. Esperientzia.

☎ **636120425**

• Mutila igeltsero lanetarako prest. ☎ **6620263424**

• Persona kamarero edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ **649368137**

• Neska umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **697431326**

• Mutila lanerako prest.

☎ **638465098**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **628529252**

• Eraikuntzako 2. mailako ofiziala lanerako prest. ☎ **661225149**

• Mutila kamarero, igeltsero zaintzaile edo garbiketarako.

☎ **650813847**

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **667709439**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako prest.

☎ **666110602**

• Neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia. ☎ **627437179**

• Neska lanerako prest.

☎ **699813826**

• Mutila igeltsero, enkofradore edo segurtate lanetarako prest.

☎ **943172896 (Iosu)**

• Neska lanerako prest.

☎ **667806119**

• Emakumea egunez edo gauzez lan egiteko prest.

☎ **943172896 (Mertxe)**

• Biokimikan lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Mate, fisika, kimika, ingles, biologia...

☎ **675703356 (Nerea)**

• Neska garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **650817847**

• Mutila peoi edo garbiketarako prest. ☎ **679759349**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **679759349**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648835924**

• Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **647190246**

• Karaokedun mutila tabernetan lan egiteko prest.

☎ **671171503**

• Emakumea umeak, nagusiak zaindu, garbiketak egin, kamarero... Esperientziaduna.

☎ **638527915/943530132**

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest egunez eta gauzez. Esperientziaduna.

☎ **675711658**

• Emakume euskalduna gaixoak zaintzeko prest arratsaldez edo gauzez. ☎ **626438248**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **671476869**

• Mutil gaztea pintore, igeltsero edo kamarero lanetarako prest.

☎ **610632782**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **671343612**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **606169667**

• Emakumea ostalaritzan edo garbiketa lanerako prest.

☎ **666032715**

• Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ **638527915**

• Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest.

☎ **638494501**

• Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **638515953**

• Mutila lanerako prest.

☎ **654604798**

• Mutil gaztea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.

☎ **638515953**

• Emakume elgoibartarra garbiketarako prest. ☎ **699717008**

• 50 urteko emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **648842509**

• Emakumea garbiketarako egin, nagusi edo umeak zaindu, sukaldari... ☎ **654604798**

### ESKAINZA

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira.

☎ **620810120**

• Kamareroa behar da asteburuetarako. ☎ **943531771**

• Sorailuzeko tabernarako kamareroa behar da. ☎ **652772275**

• Kamareroa behar da tabernarako. Kontratuarekin.

☎ **670250429**

• Sukaldari laguntzaile eta garbitzaile behar dira.

☎ **943127334**

• Mendaroko kafetegian lan egiteko sukaldaria eta sukaldari laguntzaile behar dira.

☎ **943030150**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Elgoibar ikastolak HH 1. eta 2. ziklorako, LH eta DBHrako irakasle polita osatzeko kurrikulumak behar ditu. ☎ **943744441**

• Igeltseritza enpresak esperientziadun mutila behar du.

☎ **605705204**

### ABISUAK

• Urrezko belarritakoak ahaztu nituen kiroldegian, ilea lehortzeko tokian. ☎ **635739207**

• Hozkailua hartuko genuke lokalerako. ☎ **627104915**

• Giltzak aurkitu ditut Arrateko bidean. Labana bat dute zintzilikatuta. Udaltzaingoa daude. ☎ **685767053**

• Giltzak aurkitu ditut San Lorentzora bidean. MNG txapita bat dute. Udaltzaingoa daude.

• Apirilaren 13an raketa bat aurkitu genuen San migeleko frontoian. ☎ **685767053**

• Batxilergoko matematika klase partikularrak hartuko nituzke.

☎ **943744394**

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak **Amaia Iriondo** bihar 8 urte egingo dituzulako. Zorionak kanpeona!



▶ Zorionak **guapisima!** Ondo pasa zure eguna eta muxu potolo bat denon partez.



▶ Zorionak **Ales** zure 4. urtebetetzean. Laztan handi bat denon partez.



▶ Zorionak **Paula** hilaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Unax** alprojari 3 urte egin dituzulako. Etxekoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Iker Merizalde** hilaren 29an 3 urte egingo dituelako. Gurasoen partez.



▶ Zorionak nire mutil **polixari** bere 7. urtebetetzean.



▶ Zorionak **Oscar** bihar 7 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Araceli** igandean 12 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Galdert** Muxu erraldoia Ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Maialen** hilaren 30ean 7 urte egingo dituelako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Nora** 10 urte handi egin dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **bihurri** hilaren 4an 6 urte egin zenuelako. Familiakoen eta bereziki, Garazi eta Nagoreren partez.



▶ Zorionak **Maren** igandean 2 urte beteko dituzulako. ondo-ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **Aimar Garcia** maiaztaren 5ean urte 1 egingo duelako. Aitxitxamama eta lehengusuen partez.



▶ Zorionak **Nora** hilaren 29an 11 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Nerearen partez.



▶ Pasa den asteartean urteak egi zituen **Inigori** 7.000 kilo zorian familiakoen partez.



▶ Zorionak **Julene** maiaztaren 3an 8 urte beteko dituzulako. Familiakoak eta Nerea, Ibai eta Markel.



▶ Zorionak **bikote!** Hori da parejia egiten dozuena! Segi jator-jator ezkondu eta gero ere! Koadrilakoak eta lagunak



▶ Zorionak aitaxo **Jose Mari, Jon eta Eider** zuen urtebetetze egunean. Egun ona pasat! Familiakoen partez.



▶ Zorionak **hirukote!** Joan, June eta Amets! Txintxoak izan eta ondo pasat! familiako guztien partez.



**karkizano**  
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49



*Arrieta*  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**1973ko kintoen BAZKARIA**

**Lekua: ARRATE TABERNA**  
**Eguna: MAIAZAK, 1**  
**Izen ematea: Apirilak 30a baino lehen Arrate tabernan.**







## [ OKINDEGIA ]



29 igandea DOÑA MERCEDES

1 asteartea EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

- GUARDIA 24 ORDUZ**
- 27 Zabaleta
  - 28 Etxeberria (*Errosario*)
  - 29 Etxeberria (*Errosario*)
  - 30 Ibañez
  - 1 Etxeberria (*Santa Ana*)
  - 2 Etxeberria (*Santa Ana*)
  - 3 Fernandez
  - 4 Yudego
- \* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA: 902 10 12 10**

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiko. Azkena 21:55.  
**Asteburua eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN: 902 543 210**

## [ 27 BARIXAKUA ]

### 17:00 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 18:00 BERTSO ANTZERKIA

Izenburua: "1, 2, 3, ...Inaxito"  
 Taldea: Trikuharri  
 Herriko Antzokian

## [ 28 ZAPATUA ]

### 21:30 KONTZERTUAK

#### ELGOIBARKO GAZTETXEAN

Taldeak:  
 "Sogo" (rock melodikoa)  
 "'Hoon" (bikote akustikoa)



## ESKERTZA

2007ko apirilaren 16an hil zen  
**Maria Rosario Aguirre Emparan**en sendiak,  
 bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2007ko apirilaren 23an hil zen  
**Juan Uriarte Bengoetxearen** sendiak,  
 bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [ 2 EGUAZTENA ]

**18:30 BERTSOZALE ELKARTEAREN KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA**  
Herriko Antzokian

### 19:00 HITZALDIA

Gai: Familia: zailtasunaren kudeaketa prebentzio ikuspegi batetik  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Hizlaria: Aiora Perez de San Roman, psikologoa (euskaraz)  
Antolatzailea: Gazteria Saila, herriko ikastetxeekin lankidetzan

### 21:30 UDABERRIKO ASTEAZKENETAN MENDI EMANALDIK

"Andinismo Vertiginoso. Del Chacaraju al Rondoy"  
Musika Eskolako auditorioan  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.  
Hizlaria: Aritza Monasterio.

## [ 3 EGUENA ]

**11:00 SANTA KRUTZ MEZA**  
San Rokeko ermitan

## [ 4 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**  
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 22:30 KONTZERTUA

"Morau"  
Kultur Etxeko Sotoan.  
Antolatzailea Madalako Jai Batzordea.

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



#### «Diamante de Sangre»

27, barixakua: 22:15  
28, zapatua: 19:30-22:15  
29, domekia: 19:30-22:15  
30, astelehena: 21:30

#### «Harri majikoaren bila»

29, domekia: 19:30  
«Llach, La Revolta Permanent» (Z.K.)

3, eguena: 21:30

### EIBAR, UNZAGA

#### «Cerdos salvajes»

27, barixakua: 19:30-22:15  
28, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
29, domekia: 17:00-19:30-22:15  
30, astelehena: 19:30-22:15  
1, martitzena: 19:30-22:15  
2, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Diamante de sangre»



Zuzendaria: Edward Zwick  
Antzezleak: Leonardo DiCaprio, Jennifer Connelly.  
90. hamarkadan Sierra Leona astindu zuen gerra zibil eta kaos egoera da kontakizun honen eszenatokia. Danny Archer, mertzenario ohi hegoafrikarra eta Sierra Leonako Mende herrixkan jaiotako Solomon Vandy dira protagonistak. Bata zuria, beltza bestea, istorio eta bizimodu erabat ezberdinak dituztenak. Diamante arrosa preziatu bat berreskuratzeko ahaleginak batuko ditu. Solomonek txikia zenetik behartuta lan egiten zuen meatzean aurkitu zuen diamantearen beri izango du Archerrek kartzelan dagoela.

## «Llach, la revolt permanent» (Z.K.)

Zuzendaria: Lluís Danès.

Gasteiz, 1976ko martxoaren 3a. Langileen arteko batzar bat banatzen hasi eta 5 gizona hil eta 20 bala zauritu laga zituen poliziaren jardunak. Gau hartan bertan, Trantsizioko abestirik ezagunetarikoa izatera iritsi zena: "Campanades a morts" konposatu zuen Lluís Llach kantautoreak. 30 urte pasa eta gero Gasteizera itzuli da Llach, martxoaren 3an hildakoen oroimenez antolatutako kontzertuan parte hartzeko. Llach beraren berbek eta musikak gidatuko gaituzte denboran eta espazioan eginiko bidaietan.



# Atzera hegira



**1965** . urteko erretratu zahar hau **Mertxe Ondartzak** laga digu. San Bartolome jaietako Txiki Egunean ateratako argazkia da. Ikusten den bezala, jai giroan murgilduta daude neska hauek, festetako zapia lepoan jarrita eta buruko dotorearekin. Gaur egun bezala, lehen ere, zuri-gorritz janzteko ohitura zegoen Txiki Egunean. Neska hauek batzuk gona txuri eta gerriko gorritz ageri zaizkigu. Txankakuako zubian ateratako erretratua da hau, San Bartolome eliza ikusten da atzean. Irribartsu ikusten ditugu neska hauek, ez zaie umorerik falta. gogora ditzagun zein diren argazkiko protagonistak:

Ezkerretik eskumara: **Feli Fernandez, ezezaguna, Txelo Martinez, Mertxe Ondartza eta Maria Jesus Arriola.**



## I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 3an, 76 urte zituela hil zen

**Jose Etxaniz Osororen**

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 28, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik..





### Erreparazio zentroa:

Zure ibilgailuarentzat mantenimendu eta erreparazio zerbitzu osoa emango dizugu. Hau guztia tratu pertsonalizatu eta kalitate-prezio ezinhobearekin.

#### Abantailak:

- Pneumatikoetan aukera zabala
- Ordua eskatu gabe atendituko zaitugu.
- Etenik gabeko ordutegia (09:00-19:00)
- Marka guztiak
- Bermea
- Pre-ITV-a doan

*Zerbitzu integrala eta kalitatezkoa.*



Mercedes-Benz



# AXIER, S.L.

Garagarza, 1 - MENDARO  
Tel.: 943 75 71 60 - Fax.: 943 75 50 72  
e-posta: axiersl@axiersl.com

# ingeniaritza imh

## IMH Ingeniaritza Eskola

Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

- Ingeniarria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boleniako itunean indarrean dagoen titulu ofiziala lortu
- atzerrian praktikak egin

ate irekiak

maiatzaren **5**ean

goizeko **11:30**etan

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola ezagutzera

*zure txanda!*



ikasten ala lanean?  
*Ikasi eta gainera lan egiten dut.*



Informazioa  
IMH INGENIARITZA ESKOLA  
Azkue Auzoa, 1  
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa  
Tel: 943 744 132  
E-mail: ingeniaritza@imh.es  
www.imh.es

cesis  
Frantsisko CESI  
Ingeniari Titulu ofiziala







# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Etxekit

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak  
☎ 653 707 837

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloia  
3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldúa

Urasandl, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosarlo, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055  
☎ 943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandl, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98  
☎ 629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com